

Belaunaldien arazoa Euskadin

Deia, 1983-07-06.

Beti kezkatu dit gai honek: nola ingurugiroan eta bakoitzak bere baitan hain erraz somatzen dugun Euskalerriko belaunaldien arteko borroka, argia izan ditekkeen bidean azaldu. Ahalegin bat Donibane Lohitzunen egin nuen 1974an, han exilatu artean nabaritu nuen giro tristeak eraginda.

Orain Euskaltzaindiak Piarres Lafitte jaunaren omenez argitaratu duen liburuan irten da (*Pierres Lafitte-ri omenaldia*, Iker-2, 1983), gordea egon zen lana.

Uste dut aztertu nituen argudioak hemen laburki aipatzea ez dela alferrikako izango.

Belaunaldien arteko eztabaita zaharra da, aita-semeen ikuspuntuen artekoa lekuko; baina belaunaldien arteko diferentziak handitzen joan dira aspaldi: 1) gertaeren eboluzioa (batzutan iraultza ere) komunikabideen eraginaz asko bizkortu delako, eta 2) fenomeno beronek gizakia informatuz gero: lehen ikusle huts, pasiboa, zen gizonak, gaur gertakizunen tarteko denaren halako ilusioa nabaritzen duelako.

Baina, ona dirudien egoera berri honek, ba du txarrik ere: *inkomunikaziora bultza du gizona*.

Zergatik?: 1. Gizarte eta politikoak diren lorpenak, delako *garaikidetasuna* sortzen dute, eta, hala, bakoitzak *bere garaikoekin leial izan nahi du* eta garai honetako "egia" defendatzen du, besterik ez balego bezala. 2. Gertakizunak ba du denentzat ondoriorik, baina batez ere gertakizuneko une horretan gazteak direnentzat, gertakariaren ondoreak eragin luzeagoa izango duten horientzat. Bidezko da, bestalde, etorkizun luze hau aurrean ikusten duen gazteak berez deskubritu nahi izatea; hoiek antzindariak egindakoarekin konformatuko balira, ez litzateke ezer berririk sortuko, ez aurrerapenik egingo, eta aurrerapenik gabe, zibilizaziorik ez dago. Ba da gazteak sinesten duten beste zerbait: *ekintzarik efikazena zuzenekoa dela*, konturatu gabe, artezko bide hau dagoeneko aitonek erabili zutela, zoritxarrez, bando bat bestearen aurka eratuaz.

Abertzaletasunaz: Batzuk besteei aurpegiratzen dietena hau da: nor abertzaleago! Ba da soluzio bat baino gehiago: ahaleginetan ari direla zahartu direnak ikusbide bat dute, berriki hasi direnak, bestea; bestalde, bien bitartean mundu osoa aldatu zaigu gure inguruan, bai gizarte, politika eta erlijio mailan ere, eta hau eztabaidatzera ez gara pakean eta buruz hurbiltzen, asarre bidean aldentzen baizik.

Baina borroka antzu honetatik irten behar genuke, ba dugu honetarako burua; hemen ere biderdiaren bila saiatu behar hasi gintuzke bi muturretan jarriko geratu garenok.